# Euskal Herrian Euskaraz

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ ERRENTERIA

Denboran pixka bat atzera jotzen badugu, berehala konturatzen gara noiz eta zergatik azaldu zen EHE taldea. EHEren prozesua ez da bat batean agertu zen fenomeno bat, noski. 1979. urtean egiten dira publikoki taldearen proiektu eta helburuak. Orduan pertsona batzuren hitz haiek, gaur errealitate dinamiko bat bilakatu dira. EHE sortu zenerako, euskal instituzioek bazeramaten denboraldi polit bat beren ihardunetan eta orduarako euskaldun multzo zintzo bat benetan kezkatzen hasia zen euskal erakunde eta politikoek euskararekiko azaltzen zuten portaerekin. Egia esan behar bada, kezkatu baino gehiago bildurtu egin ziren, euskararen egoera ikusirik. Ezin zen egoera hura ulertu, ez sinetsi, politikoen eta gizarteko multzo haundi baten axolagabekeria gure hizkuntzarekiko portaerari zegokionez. Euskaldun hitza ahoz aho zebilen, gora eta behera, han eta hemen; eta era berean gure histori mitikoa, gure hizkuntza zaharra independentzia, burujabetasuna, herria eta nazio kontzeptuak, baina... erdaraz!

Eta egun batean mandamendu berri bat entzuten da: «Euskalduna, euskara duena da». Batzurentzat hemen amaitzen da beren historia eta beste batzurentzat hasi. EHE benetako euskaldunen mugimendu bat da, erakunde eta jendearen geldikeriak sortzen duen erreakzio bortiza. Taldeak, atzerriko eta geure exenpluak aztertu ondoren argi eta garbi ikusten du, ez instituzioak, ez legeak, ez intelektualak; nahiz eta denak bat egin, ezinezkoa dutela gure hizkuntzaren garaipena eta normalizazioa lortzea.

EHE–entzat argi dago: Euskara, Euskal Herriak bakarrik aterako du aurrera. Eta honetarako baldintza bakarra dago: Euskararen erabilpena.

Hamaika aldiz demostratu dugu euskaldunok hizkuntza kontzientziarik ez dugula, eta honela geuk ari garela geure hilobia zulatzen.

Gure kasoan borondate politikoa ez da aski hizkuntza normalizazioa lortzeko; bitartekoak behar ditugu, eta horretarako borrokatzen du EHE–ek. Kontzientziazio kanpainak, manifestaldiak, euskal irrati–telebistaren aldeko mobilizazioak, trafikoko seinaleen ezabaketaketa euskaratzeak, udaletxeetako salaketak, dendetako izen–txartelak, euskaltokien eraketak eta abar aurrera eraman ditu militanteen lan pairakorraren bitartez.

Herri dinamika bat bultzatu nahi dugu, euskara denon arazoa delako. Oraindik bidean lan asko dago egiteko. Noiz lortuko dugu telebista, prentsa, eskolak, udaletxeak, parlamentua eta gobernua gure hizkuntza ofizial eta nazionalen aritzea? Ikusiko duzun bezala, arrazoi asko ditu EHE–ek bere lanean jarraitzeko.

Gure super eta makrozibilizazio honen jokaera jakinik, guk ez dugu inolazko zalantzarik ikusten daramagun jokabidean, eta jakin bai, badakigu nolako burruka latza jasan beharko dugun gure herria euskalduna ikusi arte. Gure mikro–txikitasun honek ez digu etsiaraziko, noski.

EHE–ek sinesten du euskaldunok hizkuntza propioa dugula: Euskara, eta euskararik gabe ez dagoela ez euskaldunik, ez indepentziarik, ez abertzalerik.

Gaur egun, euskalduna izatea ia ia probokazio bat bihurtu da; eta soziolinguistak dioten bezala, hizkuntza bat probokazioa bilakatzen denean bere desagertzea begi aurrean daukagu.

EHE–ek egoera honi enbido bat bota dio eta irabazteko, konbentzitu zaitez, zure tantoa ezinbestekoa zaigula.

# KILOMETROAK

MIKEL ERRIONDO

Aurtengo honetan eta dakizuenez noski, Errenterian ospatuko da Euskara eta Ikastolen alde eratzen den ekitaldi edota jai hau.

Urtez urte sendotzen doa festa hau. Urtez urte jendetza gehiagok parte hartzen du bertan.

ERRENTERIA beste zenbait ekintzeta bezalaxe, badu adierazpide berezia, eta gure ilusioa, antolaketaren ardura onartu dugunon ilusioa zera litzateke: oraingoan ere, aurreko ediziotan baino dimentsio zabalagoa lortu.

Esan nahi dudana argitzen saiatuko naiz.

Gure Ikastola berezia eta bakarra izan da zenbait arlotan. Horietako bat eta garrantzi gehientsuenetakoa zera da: Gure herrian bizirik diren ideologi desberdinak elkar bizi izan dira gatazkarik gabe Ikastola barru.

Eta hauxe litzateke gure ilusioa. Aurtengo festa honek elkarren arteko laguntasuna, erabateko BATASUNA sor dezan gure artean; gure Euskal–Herria Euskadi bihur dadin elkar burrukatzeko kapaz ez bagara, egun bat izan dezagun urtean aipatutako utopia hori errealitate izan dadin.

Zer eskatuko nizue guztioi? Zuen uste sendoak, zuen etsipenak alde batera utzi eta egun batez «elkartzen gaituen gauzatan oinarritu, banatzen gaituena alde batera utzirik» karlistak esan zuenari jarraituz. Hau egiteko gauza bagara, bide baten oinarriak ipintzeko gai izan gara, egun batez besterik ez bada ere, etorkizunerako EUSKADI bateratu bat lor dezakean bidean, ilusioz eta eskuzabal bere etorkizuna bizitzeko gai den herria.

Lagun gaitzazu esandakoa lortzen... egun batez bada ere.

# KILOMETROAK

Como ya sabéis, este año es en RENTERIA donde se celebra esta fiesta instituída en pro del euskera y de las Ikastolas.

Es una fiesta que, como muchos de vosotros sabréis, va consolidándose y de año en año va superando el número de asistentes.

RENTERIA, como en otras muchas actividades, tiene su peculiar forma de expresarse y, nuestra ilusión, la de los que hemos aceptado organizarla sería, que también en esta oportunidad fuéramos capaces de darle una dimensión más amplia que las anteriores ediciones.

Me explicaré.

Nuestra Ikastola ha sido peculiar y única en varias facetas. En una de ellas, sin duda la más importante, ha sido la de ser capaces de convivir en su seno, sin conflictos, las distintas ideologías imperantes en nuestro país.

Y ésta es nuestra ilusión. Conseguir que la edición de KILOMETROAK de Rentería engendre una fiesta de hermandad, de total BATASUNA entre todos nosotros para que, si seguimos siendo incapaces (en nuestra historia pasada y presente) de luchar unidos para poder convertir nuestra Euskal–Herria en EUSKADI, nos queda siquiera un día al año en que esta utopía sea realidad.

¿Qué os pediría a todos? Dejar por un día de lado la defensa de vuestras convicciones, olvidaros por un día de nuestras diferencias y como dijo el carlista «apoyémonos en lo que nos une dejando como secundario lo que nos separa». Si somos capaces de hacerlo podremos haber creado un camino, siquiera por un día, que con el devenir del tiempo pueda dar origen al sueño de todos, una EUSKADI unida, un pueblo viviendo con ilusión y entrega su futuro libre y auténtico.

Ayúdanos a conseguirlo... cuando menos por un día.

# URDABURU

Jesús Hospitaler
G.M.U.

— ¡Mira éste! ... falta el escrito del URDABURU, me advirtió Esteban.

— Bueno, pues se le puede avisar a «Udalatiz» le contesté, mientras iba pensando en los redactores del antiguo boletín del Urdaburu.

— No, ese ya ha enviado su escrito a la revista.

— Entonces... «Mendizorri» o «Txiritxa».

— También tenemos sus cuartillas.

— ¡Vaya!, preguntaré a la Sociedad.

— Dicen que si tenéis el artículo para OARSO que puede ser sobre las circulares que publicábamos. ¿Dónde está el que se ha hecho cargo de la nueva emisión del boletín?

— Está de vacaciones.

— Rinn... rinn... rinn...

— ¿Sí?

— ¡Oye!, que este año la revista trata sobre literatura, y se podría hablar de lo editado por el Grupo.

— ¡Uf! estoy a tope de trabajo. Ya te llamaré.

Fue en Enero de 1949 cuando salió la primera circular. Antes se confeccionaba una hoja a multicopista.

La mayoría de los artículos venían firmados con seudónimos, como los nombrados anteriormente, siendo algunos otros: «Malbazar», «Ariñ», «Uakorri», «Bidazti»... ¿Cuál emplearía Adolfo Léibar, Alberto Eceiza, Antonio Sáinz, Otegui...?

Releyendo los boletines es como he vuelto a recordar estos nombres, así como me han adentrado en excursiones, escaladas y otros tipos de actividades más que un tanto olvidadas, sobre todo en fechas.

Puedes revivir algo, pero falta el momento, el lugar, color, luz, temperatura... y muy mucho un cuerpo más joven en el que, aún metido en una similar situación, a través de tus ventanas, y tus poros, pueden penetrar, como una osmosis, todas las sensaciones. Pero parece ser que la membrana está ya un tanto taponada y es mucho más lento el trasiego.

¡Qué días aquellos en los que se estuvo adecentando la Txabola de Pagotxarte, hace ya casi venticinco años! Incluso se puso una cocina para leña. Ahora, estamos con la construcción de un refugio-borda en Ansó, y Dios quiera que no haya unos «elementos» que nos la deshagan como la anterior.

También, de esas fechas, hay un escrito sobre limpieza del monte y lugares de recreo, y eso que entonces la gente por ser menos civilizada, ensuciaba menos.

Ahora, en Rentería, seremos unas veinte mil personas más y muchísima más gente de la vida airada entre la gente de traza, y no creo que de momento se consiga gran cosa por mucha campaña pro–limpieza que se haga. Pero algo se adelantará, ¡segúro!

